

MANOLO ZABALA

“Guk egindako lanak fruituak eman dittuala ikustiak poz haundixa ematen ditt”.



Zintzo ekin dio Manolok elkarrizketari, eta zera aitortu dit ezer baino lehen: “Nik erderaz asko egin dot; Gerra Zibilak bete-betian harrapatu ninddun eta bizitzaren parte haundi bat erderaz egin dot”. Baina etxetik jaso zuen euskaltasunaren sua ez zaio sekula itzali, “euskaltzalia izan naiz beti”, eta horrek, besteak beste, Elgoibarko Izarrako presidente izatera bultzatu zuen. Hankak nahi baino malalago mugitzen ditu, baina burua argi dauka.

Lehendakari izan zineneko zer oroitzapen gordetzen dituzu, Manolo?

Ni 1974an izan nintzan elkarteko presidente. Hori bai, aurretik elkartiak etaratako bonuak erosteko dirua ere ipini naban. Akorduan daukat nere arduraren nagusixa ikastolari lotuta egon zala. Oso gogorra izan zan sasoi haura. Arazuak izaten genduzen danian; dana zan kargia. Akordatzen naiz kotxia hartu eta maisu-maistra billa ere jardun gendula; andereñuak beren etxera junda fitxatzen genduzen. Eta ikastolako diru-kontuak eruateko sistemian ere ekarri naban geure taillarretik. Taillarreko langile fiñetako bat ere, Marisabel (Zabaleta), guretik etara eta Elgoibarko Izarran jarri gendun lanian. A, eta Aubixako lehenengo literak ere kamioian ekarri genduzen Santurtzira junda; gure taillarrian bertako langilliak txukundu eta Aubixara eruan genduzen.

Zer eman zenion elkarteari?

Nere izate osua eman nion Elgoibarko Izarrari. Buru-belarri jardun naban, eta denbora asko eskeini nion elkarteari. Ahalmen haundirik ez gendun eukiko, baiña gure onena emanda geratu giñan behintzat. Akorduan daukat behin abuztuko oporretara junda gabe geratu giñala ikastolako lokal bat irailian martxan jarri bihar zalako; gaixotu egin nintzan hainbeste lan eta ardurarekin, eta Araolazak oporretara bialdu ninddun. Donostiara ere juten giñan; obispuarena, batian, inspektore edo gobernadore zibillarena, bestian. Eta Zarauzko ikastolarekin ere harreman haundiak izan genduzen. Orduko euskalgintzak ez zaukan zerikusirik gaur egunguarekin.

Eta zer eman zizun elkarteak zuri, Manolo?

Satisfaziua! Gustoko lekuan eta herrixaren alde lan egitteko aukeria. Eta guk egindako lanak fruituak eman dittuala ikustiak poz haundixa ematen ditt.

Zer eman dio Elgoibarko Izarrak Elgoibarko herriari?

Dana. Elgoibarko Izarrari esker euskaldundu da Elgoibar. Badakitt ez dala guk nahi beste euskaldundu oraindik, baina orain dala 50 urte baino askoz hobeto bizi gera euskeria eta euskaldunok. Sasoi haretan dana zan beltza, eta ezer ez zaguan tokittik etaratzen gendun dana. Gaur egun, berriz, nahi duguna lortu ez badogu ere, oiñarri sendo bat badaukagu. Hori bai, oraindik lan haundixa egin bihar dogu lortutakuari eusteko eta lortzeke daguana lortzeko. Eta ez ahaztu gauza bat: lehenguak izan ziralako lortu da orain artekoa. Eta, kontuz, egindako ibilbidean ez dago Elgoibarko Izarra bakarrik. Hor dago Udala; hor dago parrokiaria; hor daude gurasuak; hor maisuak eta andereñuak; hor dago herrixia, azken fiñian. Herrixia izan da prozesu honetako benetako protagonistia. Zeozer bihar gendun bakoitzian herrixarengana jotzen gendun eskian, eta herrixak beti erantzuten zaban ondo. Lasaitasun horrekin urtetzen gendun laguntza eske: ardurariakin, baiña batera lotsarik gabe.

Eta aurrera begira, zer, Manolo?

Baikorra naiz. Esan doten moduan, oiñarria jarritta dago eta hurrengo 50 urtetan hobera egin bihar dogu, derrigor. Baiña horretarako zirikatzaillak biharko dira, orain arte egon diran moduan. Bestiak beste, Elgoibarko Izarrak bete bihar dau paper hori. Euskara-zirikatzailerik ez badago, euskeria desagertu ez da egingo baiña lozorrora pasauko da. Hala zaguan elkartia sortu aurretik, eta egoera berera bueltatuko da Elgoibarko Izarrak zirikatzaillak-lanak egitiari lagatzen badio. Pertsona lagia da, eta zirikatzen ez bajako, laster gelditzen edo lotaratzen da, eta hori da zaindu bihar doguna.

Bere izenik ez goratzeko eskatu ondoren agurtu da Manolo. BARREnerako bidea hartu du berak, erretratua ateratzeko. Ni, berriz, ordenadore aurrera bueltatu naiz, eta Manolok esandakoak buruan bueltaka hasi zaizkit. Eta konturatu naiz gure aurrekoekin egoten naizen bakoitzean energia gehiago pilatzen zaidala elkarteak egin behar duen bidean aurrera egiteko.